# BERRIGARA

2. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, azaroak 17




## 100 bergarar nguru iritsi iren helmugara

# Behobia-Donostia

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
**TAKOLO AUTOAK**
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

PEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.



AROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonoa eta Faxa: 76 54 91

ZATOZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA



**Altzarien dekorazio eta erakusketa**

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK



# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:**
CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIONDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

BERRIGARA

...ROTALDE JAUREGIA
...570 Bergara
...oa eta Faxa: 76 03 97

**...gitaratzailea:**
...RDUN Elkartea.
...sterreka, 13 Bergara.
...oa eta Faxa: 76 08 19
**...uzendaria:**
...eko Azkarate
**...rredakzioa:**
...ardo Mendibil
...el Elkoroberezibar
...e Larrañaga
**...aketazioa:**
...eko Azkarate
**...blizitatea:**
...a Azkarate
**...rpidetzak:**
...ka Elortza
**...stuen zuzenketak:**
...epan Plazaola
...pi Laskurain
...a Labaien
**...redakzio kontseilua:**
...ka Elortza
...uel Angel Elkoroberezibar
...a Labaien
**...rgazkiak:**
...or Rodriguez
...ka Ortega & Jon Alvarez
...x Ugalde
...i Azkarate
**...maketa:**
...rtxangorri taldea
**...rada:**
...00 ale.
**...nprimategia:**
...tu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**...pyright:**
...ERRIGARA
**...ge gordailua:**
...50/91
**...SN:**
...0-6599

...ERRIGARAk ez du bere gain ...tzen aldizkarian adierazitako ...zen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko ...urlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du



Z E B E R R I D A ?

# TXARO ARTEAGA

## *Emakundeko zuzendaria*



**- Kirolen munduak gizonena izaten jarraitzen du?**

- Oraindik egia da bai baina emakumeok pausu haundi bat eman dugu eta gero eta gehiago ari gara eremu guztietan parte hartzen. Baina oraindik zailtasun haundiak ditugu, aurretik dauzkagun eragozpenengatik batipat. Txiki txikitatik esaten digute kirol batzuk gizonenak direla eta emakumeok ez dugu presentziarik. Horrek zure ahalmenetan mugatzen zaitu eta bestalde, orain arte ez dugu izan gizonen kiroletan egon diren besteko erreferentziak.

**- Zelan aldatu daiteke egoera?**

- Alde batetik mentalizazio lana egin behar da eta denok aldatu behar ditugu gure portaerak. Bestalde, erakundeen aldetik ekintza positiboa egin behar da, kirola egiten duten emakumeei lagunduz. Laguntza berezi bat eman behar zaio emakumeari gizonen mailara iritsi ahal izateko. Bakoitzak bere posibilitateekin egin behar du kirola.

***"Kirolean emakumeari laguntza berezia eman behar zaio gizonen mailara iristeko"***

I T U R R I O N E T I K

## Iñurrategi anaien azken muntaia Bergaran ikusi ahal izango da

Felix eta Alberto Iñurrategi mendizaleek beren azken espedizioaren inguruan egindako azken muntaia Bergaran ikusi ahal izango da. Aretxabaletako mendizale hauek aste honetan bertan aurkeztu dute bere azken espedizioa azaltzen duen diaporama. Bertan, Himalayako Cho Oyu (8.201 metro) eta Lhotse (8.516) mendietako irudiak, Iñurrategi anaien ahotsa eta musikarekin tartekatzen dira. Muntaia 8 proiektorekin egin da eta 10 minutuko 3 diaporama eskeiniko dira. Muntaia Gipuzkoako 20 bat herritan erakutsiko da eta Udaleko Kirol Zerbitzuak Bergarara ekarriko du, oraindik fetxarik zehaztu ez den arren.

E S A N D U T E

"Udal kirol Zerbitzuetatik bultzatzen diren kirol ihardueretan emakumezko gehiago dabil gizonezkoak baino. Hori berria da guretzat eta pozgarria gainera"

**IÑAKI UGARTEBURU**
Kirol teknikaria
HERRI IRRATIA

•

"Jose Antonio Agirre, Telesforo Monzon eta hirurok txikitatik ezgutzen genuen elkar. Hirurak Jose Antonioren izeben etxe aurreko banko batean eserita egoten ginen. Agirre oso pertsona ona zen. Telesforo kazkagogorragoa. Behin batean, han eserita ginela, pianoa pixka bat jotzen zuen Monzonen aitak "Minueto" ospetsua atera zuen. Nik sigoitia jarri nion eta Isidro Ansorenak gero atabala sartu zion"

**JOSE MARI GONZALEZ BASTIDA**
Musikaria
IRUTXULO

•




TODO POR UN SUEÑO
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30
(Ikuslearen eguna).

## Zinea

▼▼ **Gus Van Sant** zuzendariaren (*Drugstore cowboy, My own private Idaho*) filme berri honetan **Nicole Kidman**, **Matt Dillon** eta **Joaquin Phoenix** aktoreak dira erreparto buruan. **Joyce Maynard** idazlearen nobelan oinarrituta, anbizioari buruzko komedia honetan, *Suzanne*k (**Kidman**) ahal duen guztia egingo du telebistako izar bihurtu eta bere ametsak lortu arte. Gaur egungo gizartearen kontrako kritika.

▼▼ **Anestesia, Lantzen** eta **Bost Axola** taldeek rock kontzertua eskainiko dute gaur, ostirala, Ipintza Institutuko patioan gaueko 10.30etatik aurrera. Ikasleen eguna ospatzeko institutuan hainbat ekitaldi antolatu dituzte ikasleek gaurko eta horien artean rock kontzertua. Sarrera doan.





▼▼ **Internazionalismo eta elkartasunaren hamabostaldia** antolatu du Komite Internazionalistak datozen bi asteetan Bergaran. Datorren asterako bi hitzaldi iragarri dira: **"Kuba norantz doa?"** (asteartea, 21) izenekoa lehena eta **"Mexico"** (osteguna, 23) bestea. Biak Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan izango dira. Lehenengoan Roberto Lastre Kubako fiskal orokorra izango da hizlari. Bigarrenean Komite Internazionalistako brigadistak eta diapositibak egongo dira. Nahikari tabernan, bestalde, **"Guatemala"** izeneko erakusketa zabalduko da astelehenean.

## Deiak

▼ **1970**ean jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen bazkaria abenduaren 2an Antxonin. Izen-ematea Kortazarren azaroaren 27a baino lehen. Prezioa: 3.500 pzta.

▼ **1938**an jaiotakoen afaria izango da azaroaren 25ean Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Javier García, Maria Carmen Leturia, Mari Asun Gardoki, Miguel Lazkano edota Juan Lonbideri.

▼ **Mendi irteera.** Alpino Gorlak eta Pol-Polek antolatuta, nagusien mendi irteera Luyando eta Orozkora azaroaren 26an. Irteera goizeko 7.30etan Frontoian izango da. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 7etan Seminarioko baxuetan.

## Ogia

▼ **Igandea 19:** Konde.

## FARMAZIAK

▼ **Ostirala 17:** Puy/Azkoaga.
▼ **Larunbata 18:** Guallar/Españ..
▼ **Igandea 19:** Guallar/Corcuera.
▼ **Astelehena 20:** Estella/Irizar.
▼ **Asteartea 21:** Mozos/Amezua.
▼ **Asteazkena 22:** Camach../Mo..
▼ **Osteguna 23:** Puy/Azkoaga.

IBARGUREN PENTSUAK
*Biona* pentsuen biltegia
*Bioter* produktoak eta haziak
San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2 behea.
☎ 76 58 83
Santiveri
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua

# Zineak 100 urte

## Zine mutuko altxorrak ikusteko aukera zapatuan



Antzinako pelikulak zuzeneko musikaz lagunduta eskainiko dira larunbatean. ARTXIBOA

**100. urteurrena** ospatzen duen urte honetan, zineak ere bere tartea izango du aurtengo Udazken Kulturalean. Horrela, "Forum Cinematographe" taldeak prestatuta, musika biziaz lagundutako antzinako zine mutuko emanaldiak izango dira bihar gaueko 10.30etan Novedades aretoan.

Bertan George Méliesen "Viaje a la luna", "Asalto y robo a un tren" (Edward S. Porter) eta "El tesoro escondido" (Gregory La Cava) laburmetraiak eta Fritz Langen "Las tres luces" luzemetraia emango dira. Irudiei musika jartzen, berriz, Musika Eskolako lau ikasle eta Iñaki Salvador pianujole donostiarra izango dira.

"Asalto y robo a un tren" laburmetraia 1903 urtekoa da eta 8 minutu inguruko iraupena dauka. Iñaki Salvador arituko da pianoan lehengo zine emankizunetan gertatzen zen bezala. "Viaje a la luna" (11 minutu) laburmetraia 1902an errodatu zuen George Mélies frantziarrak. Bere garairako efektu berezi benetan aipagarriak zituen filme honetan Jesus Mari Arriaran (oboe), Zigor Martínez (klarinete, klarinete bajua eta requintoa), Idoia Suinaga (biolina) eta Domentx Ucin (biolina eta elicona) arduratuko dira musikaz. Musika Eskolako ikasle hauek "El tesoro escondido" (1920ko hamarkadaren amaierakoa) laburmetraiako imajinei ere bizia emango diete. Filme hau azken Donostiako Zine Jaialdian ziklo bat merezi izan zuen Gregory La Cava estatubatuarrarena dela uste da. Bukatzeko, Fritz Langen "Las tres luces" (1921, 108 minutu) filmea emango da. Fritz Langek Estatu Batuetara alde egin aurretik egindako filme honetan Iñaki Salvador pianoarekin arituko da.

**Ikuskizunerako sarrerak 500 pezetatan jarriko dira salgai**

### Udazken Kulturala

**■ Udal Musika Banda**

***Igandea, 19, eguerdiko 12.30etan. Novedades aretoan. Sarrera doan.***

Santa Zezilia, musikarien eguna ospatzeko kontzertua eskainiko du Udal Musika Bandak. Aurretik, goizeko 10etan meza izango da San Pedron. Ondoren, kalejira eta amaitzeko kontzertua Novedadesen.

***Kontzertuaren egitaraua:***

**"Entre azahares".** Lehen entzunkizuna. (A. Glz. Chirlaque).
**"Tancredi".** Obertura. (G. Rossini).
**"Mendia eta itsasoa".** Preludio sinfonikoa. (Miguel González Bastida)
**" Canción india".** Sadko opera. (R. Kossakov).
**"Highlits from hook".** Pelikulako musika. (J. Williams).


**ITXASMENDI**



ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

**LONBIDE OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

## Kartzelako kontuak

Orain dela bost urte espetxeratu nindutenean nere ikusmena primerakoa zen, geroztik hona puxkanaka puxkanaka galtzen joan naiz.

Barruan, ordu asperrak arinago joan ahal izateko, askok eta askok irakurtzen pasatzen dute egunaren zati handi bat, nahiz eta ziega gehienak oso geizki iluminatuta egon.

Horretaz gain, janaria oso txarra denez, normala izaten da A bitaminaren gabezia; eta horren ondorioz poliki-poliki konturatzen hasten zara ez duzula lehen bezain ondo ikusten. Duzun arazoa sendagileari esaten diozunetik, zure ikusmena neurtzera baten bat datorren arte, hamar bat hilabete pasatzen dira, eta etorri den hori ez dakizu okulista den, optikoa den edo ohizko olibaren ordez bata txuria jantzi duen "pikoletoa". Ikusmena errekonozitzeko ez dago makinarik, noski! eta han hasten da okulista izan beharko lukeen horrek ea zein kristalekin asmatzen duen, zuri irakurri eginarazteko paretan jarri dizkizun letra txiki haiek. Halako batean kristalak aukeratu eta zein montura nahi duzun esaten diozunean, berak esaten dituzun zenbat diru kenduko dizuen pekuliotik eta han gelditzen zara betaurrekoak noiz eskuratuko duzun zain. Nere kasuan, lau hilabete itxaron behar izan nuen, baina badira denbora gehiago egon direnak ere; beraz, gaitzerdi.

Halako batean, ditxosozko betaurrekoak ematen dizutenean, telebista aurrean jartzen zara eta konturatzen zara lehen baino okerrago ikusten duzula eta hori moduluko sendagileari esaterakoan, honek esaten dizu, hori ohitu arte normala izaten dela.

Behin kalean, beste preso ohiei entzunda nuenez, urte batzuk begiak distantzia motzetara ohituta egonez gero kosta egiten dela urrunerako begietako sentsibilitatea berreskuratzea; itxarotea erabaki nuen.

Ikusmena berreskuratzen ez dudala konturatu naizenean, Osakidetzako okulista batengana joan naiz, Arrasateko eritetxean dagoen E. Etxeandia Gisasolarengana hain zuzen ere. Honek berehala esan dit urrutirako, gidatzeko, telebista ikusteko... betaurrekoak behar ditudala miopea naizelako, orduan espetxean eman zidaten betaurrekoak erakutsi dizkiot eta kristalak aztertu ondoren, hipermetropia duen batentzat izan beharko liratekeela esan dit; hau da, justu nik behar nituen kontrako kristalak ipini zizkidatela alegia.

Hau ikusita, Jon Iturriaga, Pilar Ferreiro eta gaixo dauden beste preso askorekin zer egiten ibiliko ote diren pentsatzen jartzen naiz, eta oilonarrua jartzen zait imajinatzearekin bakarrik.

Hala ere, datorren astelehenean, Ajuria Eneako paktuaren menpe biltzen den jendea Aldaiaren askatasuna eskatzeko Frontoian ixilik bilduko da, komunikabide gehienak presoen egoerari buruz dauden bezain mutu. Ni ordea, presoak bizibaldintza minimoak exijitzeko gose greban daudela gogorarazteko aurrez aurre jarriko naiz; eta era berean, "Euskal Herria askatu" aldarrikatuko dut, ziur bainago Euskal herria askatzearekin batera gizabanako guztien askatasuna lortuko dugula, bai preso politikoena eta baita Aldaia jaunarena ere.

**JOSE LUIS LOIDI LARRAÑAGA**

## Gabilondori erantzuna

Aurreko ostiralean DVko Bergarako kartan Javier Gabilondok esandakoari eta Gobernu Taldeari erantzun nahi dio Bergarako Udaleko Enpresa Komiteak.

1.- Ekainaren 15ean idatzi bat bidali genion alkateari bilera bat eskatuz. Ez dugu erantzunik jaso.

Uztailaren 4an, plenoa izan aurretik, zinegotzi guztiei beste idatzi bat eskuratu genien, alkateari bilera eskaera egina genuela jakinaraziz eta pertsonal batzordearen osaketa aztertu zezatela eskatuz. Ondoren, plenoan, zinegotzi batek gogorarazi zuen langileek bilera bat eskatuta zutela. Orduan ere ez zuten erantzunik eman.

Jakinarazi nahi dugu arestian aipatutako idatzien kopiak eskuartean ditugula, sarrerako zigilu eta guzti.

2.- Uda ostean, Administrazio Orokorreko teknikariaren (AOT) bitartez hainbat aldiz eskatu izan dugu, ahoz, bilera egitea, baina oraindik ez gara bildu.

3.- Bukatzeko esan dagoeneko jaso dugula bilerarako deia, prentsan salaketa egin ondoren. Gogorarazi behar dugu urte osoan bi bilera besterik ez ditugula egin eta lehenengoa ere beste hainbat aldiz eskatu ondoren lortu genuela, prentsan salaketa egin arte ez genuelako lortu udal ordezkariekin biltzea.

**UDALEKO ENPRESA KOMITEA**

## Udaletxeari gogoraraziz

1995eko urtarrilaren 4an jasotako eskutitzean zenbait proposamen egin zirela esaten zenuten. Horietako bat, Espaloiko jarlekuari buruzkoa zen, bertan negua pasatu ondoren jarlekuak konpondu, pintatu eta behar den mailan jartzeko ziren. Negua pasatu zen, uda ere bai, udazkena igarotzen ari da.

Agian beste negu bat ere pasatu beharko ote da? Ondo ez zenutenez zein urtetako negua izango zen, noiz arte itxaron beharko dugu?

**ANA S. V. (NAN: 15.363.876)**

# Tiiira biraka

UNAI AZKARATE



### ♦ 1957an jaiotakoen afaria

1957an jaiotakoen afaria izango da azaroaren 25ean, gaueko 9.30etan Azpeitxi jatetxean. Izenematea Intxorta tabernan egin daiteke.

### ♦ Jubilatuen irteera

Jubilatuek abenduaren 1ean Lizarrako feriara egun osoko irteera antolatu dute. Izenematea Jubilatuetan (76 21 40 telefonoan).

### ♦ Gabonetako argiak

Aurten ere herriko kale eta auzoak apaintzeko argiak jarriko dira Gabonetan. Kultura Zerbitzuak laguntza ematen dutenei eskerrak eman nahi dizkie.

**HILDAKOAK**

**Andres Osinalde Mujika**
Azaroak 8, 72 urte
**Eduvides Díaz de Tena**
Azaroak 9, 78 urte
**Mausa Korkostegi Saizar**
Azaroak 9, 40 urte
**Leonidas Gutierrez García**
Azaroak 11, 75 urte
**Vicente Biain Uriarte**
Azaroak 12, 80 urte
**Eusebia Agirre Idigoras**
Azaroak 13, 93 urte
**Carmen Estevez Saenz**
Azaroak 15, 62 urte

**JAIOTAKOAK**

Aste honetan ez da jaiotakoen berri jaso epaitegian.

# Mila lagun inguru UNEDen aldeko manifestazioan

**Mila** lagun inguru bildu ziren larunbatean UNEDeko Herri Plataformak zentroaren alde deitutako manifestazioan.

Manifestazio buruan jarritako pankartan *"UNEDen alde"* irakur zitekeen. Manifestazioa isilean egin zen eta bertan, besteak beste, UNEDeko irakasle eta ikasleak izan ziren. Orduerdi inguruko martxa bat egin ondoren, manifestazioa Plazan bukatu zen. Seminarioko balkoitik manifestu bat irakurri zen, zera jasotzen zelarik: *"UNEDen etorkizuna eta existentzia bera arrisku larrian daudela ikusirik, dokumentu honen sinatzaileok, zera eskatu nahi diogu UNED zuzentzen duen Patronatoari: lehenik, Euskal Kultur Departamentuaren (EKD) eta bere ihardueren jarraipena eta, bigarrenik, Patronatoaren eta langileen arteko negoziaketen hastea, UNED dinamiko eta indartsu bat eta zentroari horrenbesteko prestijioa eman dioten atendititutako karrera akademikoak eta bestelako aktibitateak lortu ahal izateko"*. Kalean manifestu bera sinatzeko aukera izan zen astebukaeran.



Manifestazioaren buruan UINEDeko langileak

Larunbatean, Seminarioko balkoian, bi pankarta jarri zituzten. Batak berregituratze prozesuaren negoziaketa aldarrikatzen zuen eta bestean *"Koro Aizarna. UNED eta Kulturaren kontra"* jartzen zuen, Kultur Diputatuari erreferentzia eginez.

Manifestazioa amaieran Juan Martin Elexpuru EKDko irakasleak jasotako erantzuna eskertu eta ofizialki EKD itxirik dagoela gogorarazi zuen. Era beran, UNED beraren etorkizuna jokoan dagoela azpimarratu zuen. Dagoeneko Patronatoak izendatutako gerente bat Peat Marwickek markatutako berregituratzea aurrera eramateko lanetan ari da.

**HBren salaketa prentsaurrean**

Bestalde, Bergarako Herri Batasunako zinegotziek salatu egin zituzten asteazkenean prentsaurrean, Victoriano Gallastegi alkateak orain arte UNED berregituratzeko arrazoiak azaldu ez izana. HBkoen ustez, *"alkateak hartutako erabakiarekin UNED epe motzera desagertuko da eta oso larria da oraindik horren arrazoiak ez jakitea"*.

Era berean, Patronatoak aurten egin dituen bileretako akten kopiak jasotzeko egindako eskaerak ez duela alkatearen partetik erantzunik jaso salatu zuten HBko zinegotziek.

**BOLSOS BERGARA, S.L.**

BBM

✔ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
✔ Denetariko konfekzio industriala
✔ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz, 1 BERGARA Tfnoa: (943) 76 57 69 Faxa: (943) 76 55 66

### ◆ Fandango eta arin-arin ikastaroa

Jardun Elkarteak antolatuta, Edu Muruamendiaraz bergarar dantzariak fandango eta arin-arin ikastaroa emango du azaroaren 28tik apirilaren 2ra arte. Klaseak asteartean izango dira, 19.30etatik 9etara. Bazkideentzako prezioa 5.000 pta.koa izango da eta gainontzekoentzat 5.500 pezeta. Izen-ematea azaroaren 22a baino lehen egin beharko da Jardunen (76 08 19 telefonoa).

### ◆ Ikastaroak Miguel Altuna Institutuan

Miguel Altuna Institutuak 18 urtetik gorako langabetuei zuzendutako "Elektrizitate orokorra eta domotikarako sarrera" eta "Beira manipulatzaile" ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea azaroaren 22ra arte izango da zabalik. Argibide gehiago 76 24 91 telefonoan.

### ◆ Alkatearen bandoa

Kontutan izanda fetxa hauetan herritar askori N.A.N. agiriak kadukatzen zaizkiela, berritzeko aukera Bergaran bertan izango dela jakin arazten da. Lekua, egunak eta orduak zehaztutakoan jakin araziko dira.

### ◆ Peruren aldeko erakusketa Jubilatuetan

Azaroaren 20tik 26ra bitartean Peruko artisau lanak egongo dira ikusgai eta salgai Jubilatuetan. Eskulanen salmentarekin batutako dirua Peruko komunitateei laguntza emateko bideratuko da.




Jardunaldietan kirol munduan zerikusia duten hainbat adituk hartu zuten parte.

# Emakumeen kirol astialdia aztertu zen ostegunean Bergaran

## *Neskek kirolean izandako gorakada azpimarratu zen*

Atzo egin ziren Udaletxeko Pleno Aretoan Deba Garaiko kirol politikari buruzko III. jardunaldiak. "Emakumeentzako kirol aisialdia" izenburupean, egun guztian zehar hainbat hitzaldi izan ziren emakumeek kirolean duten presentzia aztertzeko asmoz. Marian Ispizua Euskal Herriko Unibertsitateko soziologia irakasleak "Iragana, oraina eta etorkizuna emakumearen kirol aisialdian" gaiari buruz jardun zuen. Ondoren Victoriano Gallastegi alkateak jardueren hasiera ofiziala eman zuen eta bazkal aurretik beste hiru hitzaldi izan ziren: Arritxu Marañón Kirol Diputatuak "Emakumea eta kirol federatua Gipuzkoan" gaia aztertu zuen, Tomas Zubimendi Errenteriko Kiroldegiko iharduearen zuzendariak "Emakumeendako eskeintza kirol instalazioan" gaia aukeratu zuen eta, azkenik, Gerardo Eskarza Oñatiko Kiroldegiko kirol zuzendariak eta yoga irakasleak "Iharduera integralaren bidean" izenburuko hitzaldia eman zuen. Guztiek kirol ihardueretan emakumearen partaidetzak izan duen gorakada azpimarratu zuten.

Bazkalostean, jardunaldietan parte hartu duten 65 lagun inguruk, ibilaldi turistiko gidatua egin zuten Bergara ezagutzeko. Jarraian, Plazandreok elkarteko Pilar Otegik, bere taldeak bultzatutako kirol ekintzak jakitera eman zuen eta bukatzeko, emakumearen kirol etorkizuna aztertzeko mahai-ingurua izan zen.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi ☎ 76 15 09

KONDE

PANADEROKUA
Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

Pepelu
Ilepaindegia
Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA



Ikasle talde bat Akulu AEK euskaltegiko klase batean. ARTXIBOA

# Jaurlaritzaren akordioari ezetza eman dio Bergarako AEKk

## *Ez dute irakaslego berriaren puntua onartu*

Bergarako Akulu AEK euskaltegia AEK erakundearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmenetik kanpo geratu da. AEKko Biltzar Nazionalak akordioari bere onespena eman arren, Deba Garaiko AEKko euskaltegiak irakaslego berriaren puntuarekin beren desadostasuna azaldu zuten.

Akordioaren arabera irakaslego berria onartzeko edozein unibertsitate diplomatura nahikoa izango da eta horren aurrean AEK erakundeak helduen euskalduntze eta alfabetatzerako prestakuntza berezia aldarrikatzen du. Horrela, glotodidaktika eta klaseak emateko beste diplomatura bat eman izan dute baina Jaurlaritzak ez du hori ontzat eman. Beraz, hainbat AEKko euskaltegi (Bergarakoa tartean) akordiotik kanpo geratu dira. Bergaran, Udal Euskaltegiarekin, dauden beharrak betetzen direla argudiatu du Jaurlaritzak.

Lortutako akordioan, besteak beste, irakaslegoaren onarpena, euskaltegien mapa bat edota seguritate soziala betetzeko AEKri dirulaguntza emateko konpromezua hartu zuen Jaurlaritzak.

Bergarako AEKk zera adierazi nahi izan du; *"AEKk argi utzi du dokumentu hau abiapuntu bat besterik ez dela eta borrokan jarraituko duela euskaltegi guztiak onartu eta irakaslego berriaren arazoa konpondu arte. Era berean, Nafarroan eta Iparraldean era honetako akordioak bultzatuko ditu".*

### ◆ Elkarteen karta txapelketako finalak

Elkarteen arteko karta txapelketako finalak jokatuko dira bihar gauean Lasai-Toki elkartean. Aurrefinaletan, alde batetik Goxo-Pek Santa Anaren aurka jokatuko du eta bestetik Pertxa elkarteak eta Artatsek indarrak neurtuko dituzte. Irabazleek finala jokatuko dute jarraian tute eta mus txapeldunak nortzuk diren erabakitzeko.

### ◆ Gestoren kontzentrazioak

Gestorek deituta, gose greban diren presoei elkartasuna adierazteko eta dispertsioaren kontrako kontzentrazioak egingo dira asteartero herriko auzoetan. Datorren asteartean, hilak 21, San Lorentzon bilduko dira 19.30etan eta hilaren 28an, berriz, Bolun egingo da kontzentrazioa.

### ◆ Hitzaldi-proiekzioa asteazkenean Arans-Gin

Aitziber Uriartek pasa den irailaren 24ko "Gorren nazioarteko eguna"ren inguruan antolatutako ekintzen berri emango du asteazkenean, hilak 22, arratsaldeko 4 t´erdietan Arans-Gi eskolan. Hitzaldia, bereziki, bailarako gorrei eta 6. kurtsotik gorako ikasleei zuzenduta dago.

### ◆ Aranzabal Lagunartea

Bihar larunbata eguerdiko 12.30etan Aranzabal Lagunartearen bilera izango da Kultur Etxean. Real eta Barcelonaren arteko partidura joateko irteera aztertuko da.

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

# Komiki lehiaketaren 4. edizioa konbokatu du Jardun Elkarteak

**Jardunek**, Udalaren eta Diputazioaren laguntzaz, Komiki lehiaketaren laugarren edizioa deitu du. Bertan OHOko 6. mailatik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du. Lan guztiak euskaraz idatziak izan beharko dira eta, beraz, testuaren presentzia ezinbestekoa izango da. Epaimahaiak euskeraren aberastasuna eta zuzentasuna, argumentoa eta marrazkien kalitateta eta originaltasuna ziango ditu kontutan.

Adinaren arabera 3 talde bereiztuko dira. lehen taldean OHOko 6., 7. eta 8. mailako ikasleak sartuko lirateke eta gutxienez 2 orrialde aurkeztu beharko dituzte. Hiru sari izango dira: 10.000 pezeta irabazlearentzat, 6.000 bigarrenarentzat eta hirugarrenak 4.000 eskuratuko ditu. Bigarren taldea 14 urtetik 18 urtera artekoei zuzenduta dago: 3 orrialde gutxienez egin beharko dituzte eta 15.000, 10.000 eta 8.000 pta.ko sariak egongo dira. 18 urtetik gorakoek, azkenik, gutxienez 4 orrialde bete beharko dituzte eta sariak, berriz, 35.000, 25.000 eta 15.000 pezetakoak izango dira.




Komikiek euskarazko testua izan beharko dute derrigorrez.

Lanak aurkezteko epea abenduaren 14an bukatuko da eta sari banaketa abenduaren 29an arratsaldeko 8etan egingo da. Egilearen datu guztiak (lanak taldean aurkeztea ere posible da) sobre batean sarturik entregatuko dira eta sobrearen azalean lanaren izenburua adierazi beharko da. Beste sobre batean lan bera, izenburuaz eta egilearen ezizenaz entregatuko da.

FANDANGO ETA ARIN ARIN IKASTAROA

IRAKASLEA: Edu Muruamendiaraz

· Hasiera maila / Sakontze maila




NOIZ:
Azaroaren 28tik
apirilaren 2ra arte

ORDUTEGIA:
Astea rtetan
19.30-21.00

PREZIOA:
5.000 pzta. bazkideak
5.500 pzta. ez direnak

Izen-ematea: Azaroaren 22a baino lehen JARDUNen (76 08 19)

# Osasuna

## Gaisoen senideak



**BEGOÑA FALCES**
*(Osasun langile soziala)*

**- Datorren azaroaren 20, 23 eta 27an gaisoak zaintzen dituzten senideei zuzendutako ikastaroa antolatu duzue.**

- Bai, erizain taldean beharra zegoela ikusi zen eta otsailean proeiktu bat lantzeari ekin genion. Helburua zaintzaileak gaisoaren egoerari buruzko informazioa eta ezagutzak jasotzea izango litzateke. Adin, gaisotasun edota ezintasun batengatik bere kabuz baliatzeko gaitasuna (janzteko, garbitzeko, ohetik altxatzeko etab.erako) gutxituta daudenak zaintzen dituzten senideei zuzendutako ikastaroa da. Zaintzaile nagusia normalean emakumea izaten da eta askotan berari ere atentzioa eskeini behar zaio.

**- Zer egingo duzue ikastaroan?**

- Azken batean senideen artean, esperientziak elkartrukatuz, laguntza talde bat sortzea da helburuetako bat. Zaintzaileak diren aldetik laguntza eman nahi zaie, jasaten duten egoerak askotan estresa edota antsietatea ekartzen baitu atzetik. Kontutan izan pertsona bat zaindu beharrak, urteak aurrera joan ahala, aislamendua, komunikazio falta eta horrelakoak dakartzala, duzun denbora guztia kentzen baitizu.

Horrez gain, zaintzaileari dagokion informazioa ematen saiatuko gara. Beharrezkoak diren ardurak (elikadura, posturari buruzko aspektuak... etab.), dauden errekurtso eta zerbitzu soziosanitarioak jasotzeko zer egin behar den edota erizain taldearen lanari buruzko informazioa emango da ikastaroan. Jendeak ez daki, erizainak, pintxazoak egiteaz gain, beste funtzio askotarako ere badaudela.

**"Gaisoen senideei laguntza eman nahi diegu, askotan estresa jasaten dute eta"**



Gaisoen senideei zuzendutako ikastaroa Anbulategian emango da.

**- Osatzen den taldearekin jarraitzeko asmorik badaukazue?**

- Oraingoz 60 bat pertsona daude eta ekainean antolatu genuen ikastarora 20 lagun etorri ziren. Ikastaroarekin interesatuta dauden pertsonek Anbulatoriora jo dezakete. Osakidetzak antolatzen du ikastaroa eta doanekoa izango da. Gure asmoa ikastaroa ebaluatu eta beste talde bat osatzea da. Atentzio primariako talde osoak bultzatzen du proiektua eta udaletxetako laguntzaile sozialek ere kolaboratu egin dute.

**- Orainarte egindakoaren daturik?**

- Emakumeak bereganatu du zaintzailearen papera eta pentsatzen dut denborarekin hori aldatzen joango dela. Zaintzaile gehienak 45 eta 54 urte bitartekoak dira eta zaintzen diren pertsonak, berriz, 81-90 urte bitartean daude gehienak. Baina kontutan izan ez dituztela bakarrik bi hilabetetan zaindu, kasu askotan 7 urtez egoten dira eta dinamika hori oso gogorra da. Azken finean, pertsona horiek modurik onenean zaindu nahi dira, bi aldeak hobeto sentitu daitezen. Zaintzaileen artean laguntza morala ezinbestekoa da. Bestalde, eguneko zentroa primeran etorriko zaie pertsona hauei.

ZABALETA ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...
Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA



Bergaran epaitegia dugun arren, bertan ez da herri juradorik antolatuko, Audientzia Probintzialean, Donostian, egingo baitira herritarrez osatutako juradoa duten epaiketak.

# Herri juradoa

## Justizia herritarren esku

**Hiritar soilak justizian esku hartzeko aukera izango du datorren martxotik aurrera. Irailaren 22an burututako zozketa batean 51 bergararren izenak atera ziren herri juradoko kide izateko.**

Herri juradoko kide izateko 18 urtetik gora izan, eta idazten eta irakurtzen jakitea besterik ez da eskatzen. Asteazkenean bukatu zen juradokide ez izateko erreklamazioak aurkezteko epea.

**Bederatzi juradokide**

Bergarako epaitegiko idazkariak esan digunez Audientzia probintzialetan (Donostian, esaterako) egingo dira herritarrez osatutako juradua duten epaiketak, beraz,




KORTA-ZAR

Txokolategia

*Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea*

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

## Herri juradoak gertaerak gertatu diren ala ez eta akusatua errudun den ala ez erabakiko du. Zigorra epaileak jarriko du

Bergaran ez da era horretako epaiketarik izango. *"Herri juradoa zozketa bidez aukeratuko diren 9 lagunek eta bi ordezkok osatuko dute. Zozketak herrialdeka egin dira. Epaiketa guztiek jurado desberdina izango dute, beraz, epaiketa bakoitzerako zozketak egingo dira. Lehenengo zozketan herrialde horretan ustez gertatuko diren delitu kopurua bider 50 egiten da. Zozketa horren ondorioz 51 bergarar atera dira herri juradoko kide izateko, baina argi laga behar dugu oraindik ez direla juradokide, juradogai baizik. Epaiketa eguna baino hilabete lehenago beste zozketa batean 36 juradokide aukeratuko dira. Epaiketa egunean gutxienez 20 egongo dira eta horien artean egindako beste zozketa baten bidez aterako dira juradoa osatuko duten 9 juradokideak eta bi ordezkoak".*



### Jurado puroa

Bergarako epaitegiko idazkariak esan digunez Frantzia, Inglaterra, Italia eta Alemanian jurado mistoa dago, hau da, epaile profesionalak eta herriko jendea dago juradoan, nagusi direnak herritarrak direlarik. Estatu espainiarrean juradoko kide guztiak herritarrak izango dira. *"Nire ustez profesional bat kaleko jendea baino objetiboagoa da beti".*

Juradokideek ez dute inolako ikastarorik edo prestakuntzarik egingo. *"Hizkera juridikoa espezializatua izan arren, muina ulertzen da, eskatzen den baldintza bakarra idazten eta irakurtzen jakitea da".*

### Ez dago kontzientzia eragozpenik

65 urte baino gehiago izan, zehazten diren zenbait lanbidetan aritu edo ezgaitasun fisiko zein psikiko edo bateraezintasun arazoren bat izan ezean ez dago aitzakiarik, zozketan ateraz gero juradoko kide izan behar da. Juradokideek juramentu bat egin beharko dute eta kargua onartu ezean 50.000 pezetako isuna jarriko zaie. Juramentua egina izan eta epaiketara azaldu ezean, berriz, beste isun bat dago, 100.000 pezetatik 500.000 pezeta artekoa.

### Zigorra epaileak jarriko du

Herri juradoak epaiketan ez du akusatuari ezer galdetzeko aukerarik izango, entzutera mugatuko da, eta bi gauza erabakiko ditu: batetik gertakizunak gertatu diren ala ez, eta bestetik akusatua erruduna ala errugabea den. Juradokide guztiek eman beharko dute botua, inor ezin da abstenitu. Norbait erruduntzat hartzeko 9 botutatik 7 beharko dira eta errugabetzat jotzeko, berriz, 5.

Epaileak juradoak hartutako erabakia onartu egingo du, nahiz eta ados

### Herri Juradoak epaituko dituen delituak

- Arlo penaleko epaiketetan hartuko du parte.
- Gizakia hiltzea edo hiltzen saiatzea.
- Funtzionari publikoak lanean egindako delituak.
- Ohorearen kontrako delitua.
- Beharrean dagoenari legez eman beharreko laguntza ukatzea.
- Onarpenik gabe besteren etxean sartzea.
- Mehatxuak.
- Ingurugiroarekiko delituak.

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

AZPEITXI
Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00
Jatetxea

ez egon. Herri juradoaren erabakiz akusatua errudu-na bada epaileak jarriko du zigorra, errugabetzat jotzen bada eta kartzelan badago, berriz, aske laga-ko da.

Juradokideek sekretu-pean erabakiko dute epaia eta epaiketa buka-tutakoan ere isilpean gor-de beharko dute epaiari buruzko guztia; norbaitek sekretua hautsiz gero zi-gorra izango du: hilabete-tik sei hilabetera bitarteko gartzela zigorra izango du eta 100.000-500.000 pzta. arteko isuna.

**"Errekurritzeko aukera eta garestia"**

Bergarako idazkariak juradoaren legearen alde onak eta txarrak aipatu dizkigu. Ontzat jo du le-gea gauzatzea, konstituzi-oak aurrikusten duen lege bat beteko baita. *"Ona da jendeak ahalik eta botere gehienetan parte hartzea, ez bakarrik justizian; baina errekurtsoen bidea ere badago, beraz, alde batetik justizia herriaren esku jartzen da baina bestetik errekurritzeko aukera dago. Alde txa-rren artean, garestia izango delakoan nago: desplazamenduak, dietak (8.000 pezeta inguru), epaitegiak egokitu beha-rra... gure ekonomiaren-tzat garestia izango da".*

Oraindik ez dago ezer argi, ikuskizun dago jura-doaren inguruan gertatu-ko dena, martxoan izango dute erantzuna orain za-lantzan diren kontuek. ■



Pelikula amerikar askok tratatu dituzte herri juradoei buruzko gaiak.

## Juradokide izateko aukeratutakoen iritziak

**VICENTE RAMUDO**
**51 URTEKO LANGILEA**

"Juradoa zozketan aukeratutako jendeak osatzea ez zait ondo iruditzen. Epaitzeko badaude profesionalak, beraz, eurek egin dezatela lan hori. Nik ez dakit ezer eta ez dut nahi nigatik norbait kartzelaratzerik edo erruduna izanez gero kalean aske ibiltzerik, erantzunkizun handia da, min egiten dit... Jurado izatekotan kasurik sotilenak eta errazenak tokatzea gustatuko litzaidake".



**JOSE LUIS ETXEBERRIA**
**46 URTEKO LANGILEA**

"Hauteskundeetan mahaian egona naiz, banekien juradokide izatea norbaiti tokatu behar zitzaiola eta tira...onartu egin behar. Epaiketan kasua ondo planteatzen bada, gertakizunak behar bezala landu, aztertu eta aurkezten badira, epaia ematea ez da hain zaila izango. Txarrena izango da epaia garbi ez dagoenean".



**NEREA AKIZU**
**27 URTEKO LANGABETUA**

"Teorian oso polita da justizia herritarrek egitea eta hori guztia, baina norberari tokatzen zaionean... ez dut juradokide izateko gogorik, erantzukizun handiegia da nire ustez. Oso fuertea da pertsona bat errudun den ala ez erabakitzea, ez gara inor pertsona bat errudun den ala ez erabakitzeko".



GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

EGUREN
GESTORIA
Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

GALLASTEGI
Jostundegia
mahoizko lanerako jantziak
San Pedro, 17 ☎ 76 10 85



"Herritarrentzat erantzukizun haundia da, baina denborarekin herri juradoetan parte hartzen ohituko dira".

## Adituaren iritzia

"Oraindik ez dakigu nola gauzatuko den eta zer gertatuko den, baina herri juradoaren filosofiarekin bat nator, juradoaren aldeko naiz, justizia herriari hurbiltzea baita. Badakit juradokide izatea ez dela erosoa baina erantzukizun bat bezala hartu behar da, gizarteak eman behar duen beste urrats bat delakoan bainago.

Hasieran gogorra egingo da, asko kostatuko da; baina hauteskundeekin gauza bera gertatu da, ordezkari politikoak aukeratzea ez da erraza, erantzunkizun handia da, baina ohitu gara; juradoarekin beste hainbeste gertatuko dela uste dut, hemendik urte batzuetara normaltzat joko dugu. Hasieran eta era horretako epaiketak normaltzat jo bitartean, juradoa ez da hain objetiboa izango baina denborarekin lortuko du objetiboagoa izatea.

Horretaz gain, hasieran baliteke epaiketak ikuskizun bihurtzea baina hori ere juradoak denbora bat daramanean desagertuko delakoan nago. Bestetik, prozesuak laburtu egingo dira".

**MANU DIAZ (ABOKATUA)**

*"Herri juradoaren filosofiarekin bat nator, justizia herriari hurbildu behar zaio"*

## *Nor ezin da izan juradokide?*

- Kartzelaratuak edo zerbaitetaz akusatuak daudenak.
- Zigor penal baten bidez aldi baterako enplegua edo kargua galdu dutenak, debekuak dirauen bitartean.
- Hautatutako kargudunak, gobernu zentraleko partaideak eta elkarte autonomoetako gobernukideak.
- Justizia administrazioko langile eta espetxeetako funtzionariak.
- Letratuak, prokuradoreak, zuzenbideko eta medizina legaleko unibertsitate irakasleak eta katedradunak.
- Epaiketako partaideren batekin, magistratuarekin, fiskalarekin, edo auziarekin zerikusia duten abokatu eta prokuradoreekin familia harremanak dituztenak.
- Lekuko, perito, fidatzaile edo interpretaria izan denak.
- Auzian interesik duenak.



## *Juradokide ez izateko alega daitezkeen arrazoiak*

- 65 urtetik gorakoa izatea.
- Izendatu aurreko 4 urteetan juradokide izatea.
- Familia ardurak direla eta arazo larriak izatea.
- Lan arazoek kalte handiak sortzea.
- Atzerrian bizitzea.
- Militar profesionala izatea.
- Bestelakoak.

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

# Zein eritzi daukazu UNEDeko berregituratzeari buruz?



**Dioni Alkorta**
*80 urte, jubilatua*

UNED hemendik eramatea gaizki ikusten dut. Herriak galdu egiten du erabaki horrekin. Hori ez da pentsatu ere egin behar.



**Jesus Frago**
*57 urte, langilea*

Gaizki ikusten dut, herri osoaren onerako baita UNED bezalako zentru bat izatea. Baita kanpotik etortzen ziren guztientzat ere.



**Ernesto Pombar**
*55 urte, langilea*

Kultura den guztia mantentzen saiatu behar gara, posible den guztia egin behar da ez ixteko. Ekartzea kostatu zuena ikusita, orain ixtea nahi izatea...



**Juan Mari Iturbe**
*36 urte, langilea*

UNED basikoa da herrirako eta bailararako. Hori kentzen badute herri guztiak sentituko du horren falta. Inportantea da mantentzea.



**Dulce Rodríguez**
*41 urte, langilea*

Ez dut gaia ondo ezagutzen baina daukagun gutxia kentzea ez dut ondo ikusten.



**Begoña Unamuno**
*61 urte, etxekoandrea*

Ni lehengo moduan jarraitzea nahiago nuke, danetik egon. Eta horretarako sinatu genuen lehengunean.

Aranzabal
OIHALAK
Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

SIRIMIRI
jatetxea
PINTXO BEROAK, EGUNEKO MENUA, KARTA.
Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78




## *Euskal kultura*

Hobeto egon liteke baina euskal kultura egoera dexente politean dagoela ezin uka. Euskara bultzatu nahian hainbat eta hainbat elkarte daude, edo elkarte baino gehiago jende asko, ekitaldi ugari eta asmo anitz.

Gure aiton-amonen garaia baino dexente lehenago jaio zen euskal kultura hizkuntzarekin batera. Gora-beherak jasan ditu, opresio garaiak, baino aurrera egin du tinko eta honela ikusi dezakegu hainbat alorreko ekitaldien bitartez.

Zinean, adibidez, "Maité" filmea, euskaldun guztiek ikusi beharko genukeen filmea. Antzerkian nondik hasi gaitezkeen erabakitzea oso nekeza da: Ur, Geroa, Bederen Bat, Tanttaka, Orain... Beno! Amaigabea.

Eta amaigabean jarraitu dezakegu alorrez alor, baina gaurkoan goraipatuko dudana musika, bertsolaritza eta literatura biltzen dituen ekitaldia da: Durangoko Azoka.

Musika, literatura eta bertso asko. Erritmo herrikoiak eta rock gogorra, bertso zaharrak eta berriak, literatura klasikoa eta idazle gazteak. Dena ekitaldi bakar batean bilduta, ekitaldi euskaldun bakar batean. Giro oso polita, benetan atsegina. Abenduaren seitik hamarrera Durangon.

Badakizue Durangoko Azoka. Anima zaitezte!

**Nora ASKARGORTA**



## *Elkar trukeak*

Badakigu herritik kanpora joatea aberasgarria izaten dela, beti zerbait ikasten dugulako eta dugun nekea edo eguneroko monotoniatik irtetzen garelako. Baina denon eskuetan ez dago bidai "marabillosoa" egitea batzuetan diruak bestetan denbora ezak edo etxeko ardurak lotzen gaitu eta zer esanik ez gaztea bazara eta lanik ez baduzu. Orduan zeure burua kontsolatu behar duzu bidai liburuak irakurtzen, dokumentalak ikusten edota Hezkuntzak ematen dituen aukerak aprobetxatuz eta elkartrukeak egiten?

Hasiera batean halako ekintzak antolatzeko eta gauzatzeko oztopo asko aurkitzen dira, baina nire asmoa ez da epeaz, plangintzaz edo burokraziaz jardutea, geure etxeetan kanpotik etortzen diren ezezagunak hartzeko ditugun konplexuez idaztea baizik.

Txikitatik entzun izan dugu beste baten etxera joatea edo norbait norberaren etxera etortzea konpromisua dela eta zer esanik ez ezezaguna bada eta atzerritarra gainera. Hizkuntza, ohiturak, janak, dena desberdina daukate eta honek beldurra ematen digu pentsatuaz gure etxea ez dela nahikoa izango, gure artean pasatutako egunetan nola komunikatuko garen edo zein janari mota gustatutako ote zaien asmatuz, kontutan hartzeke elkar-trukeek dituzten alde onak. Hala nola: herritik ateratzerakoan beste hizkuntza bat erabiltzen ikasten da, hango bizimodua eta ikasketa maila konparatzen da (daukaten alde onak jasoz), lagunarteko giroa sortzen da, toki berriak ezagutzen dira eta asko estimatzen da kanpoan egoterakoan egindako barrera.

Azken finean ikasteko beste metodo bat da, zeren gazteek ezagutzen dute atzerriko kultura, baina baita ere, askotan inportanteena, bere etxea eta herria estimatzen ikasten dute. Horrela dio Juan Martin Elexpuruk Kubatik itzultzean idatzitako "Kuba triste dago" liburuan: "... zein leku zoragarria etxea, gure Euskal Herria...". Beraz konplexuak alde batera utziz ez ditzagun gal gure eskuetan dauzkagun aukerak.

**Mertxe LASKURAIN**

ARGAZKI
Julio Garrido
ERAKUSKETA



NAHIKARI
Taberna
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

AGOITZ
Tapizdenda
San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
*Eguneroko janariak / Txitxizotzak*
*Kazolatxoak / Txabierroak*
Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

SANTOS
IRRATI-TB
ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA
Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10



## Museoko erakusketa

Igandera arte zabalik izango da Kultur Etxean Seminarioko museoari buruzko erakusketa, goizez 12etatik ordubietara eta arratsaldez 6etatik 8etara. Bergarako ikastetxetako 7. mailako ikasleak ere bertan izan dira antolatutako bisita gidatuetan berriztutako piezen inguruko azalpenak jasotzen. Aurreko astean **Arans-Gi** eskolako ikasle talde bat ere etorri zen eta **Iñaki Irizar**rek mineral, zientzia aparailu, fosil edota zoologia piezei buruzko xehetasun guztiak eman zizkien. Guztira, ikusle eta ikasleen artean, 1.000 lagun pasa dira Kultur Etxeko erakustokitik.

## Zaharren astea

Aste honetan "**Hirugarren adinaren astea**" ospatzen ari da **Mizpirualde** Egoitzan. Gure zaharrek giro ona azaldu dute antolatu diren ekitaldietan. Astebukaera honetan ere primeran pasatzeko aukera izango dute. Bihar larunbata, hilak 18, Donostiako Catalina de Erauso antzerki taldeak "Cuánto suman 6 mujeres y una bruja" lana eskeiniko du 5etan eta igandean, 11.45etan kantatutako meza izango da eta ordubatean bazkaria.





## Txirrinduzaleen afaria

Goiko argazkian agertzen diren txirrinduzaleek, bizikleta gainean baino, nahiago dute ziklisten atzetik ibiltzea. Denboraldian zehar ere kilometro dexente bete dituzte Tourrean eta Estatuko hainbat karreratan eta ostiralean urteko afaria egin zuten Elorregiko **Alkartasuna** elkartean. Bertan **Ramontxu González Arrieta** eta **Iñigo Chorrau** txirrindulariak izan ziren eta bergarar jarraitzaileek plaka bana eman zieten. Umore ona izan zen nagusi eta denboraldiko anekdotak gogoratuz primeran pasa zuten guztiek. Hori afizioa...

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21
Zumelaga
JATETXEA
etorri eta galdetu!!
EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...

Zatoia
Boutique
Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

## Zikloturisten azken irteera



Denboraldi hasieran egiten duten bezala, **Dorletako amabirjina**ri eskerrak emateko egin zuten pasa den urriaren 29an Bergarako zikloturistek denboraldiko azken irteera. 30 bat irteera egin dituzte amaitu berri den denboraldian, 2.800 kilometro inguru. Neguan, datorren denboraldirako indarrak hartu beharko dituzte. Hasteko, datorren azaroaren 25ean urteko batzarra eta afaria egingo dute **Zuloa elkartean** arratsaldeko 8 t'erdietan.



## Opel Vectra berriaren aurkezpena

Ostiralean aurkeztu zen Bergarako **"Talleres Ola"**n **Opel Vectra** kotxe berria. Jende ugari hurbildu zen bertara kotxe berriaren ezaugarriak ezagutzera eta guztiak Opel Vectra berriaren teknolojia eta edertasunarekin liluraturik geratu ziren. Zeresan ugari emango duen kotxea, dudarik ez. Argazkian, Talleres Ola eta Takolo Autoak-eko langileak kotxe berriaren ondoan.

## Zertan *dihardute* ba?



**Mikel Laskurain** aktore bergararra, Hika antzerki taldeak zapatuan Getxon estreinatuko duen muntaia berriaren protagonistetako bat izango da. Berarekin batera Miren Gojenola eta Joseba Aierbe, guztiak Goenkale saioko aurpegi ezagunak, izango dira taula gainean. Hikaren areto lan honen izenburua "Henry Bengoa Inventarium" da eta Bernardo Atxagaren testuan oinarrituta dago. Zuzendari lanak Jorge Amich eta Macarena Pombok egin dituzte eta Joxean Goikoetxea eta Joseba Tapia arduratu dira musikaz. Hikaren zortzigarren lanak ordubeteko iraupena du eta Getxon estreinatuko da zapatuan euskarazko bertsioan; igandean erdarazkoa eskainiko dute.


**LAZKANO**
Oinetakoak
Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

**Amets**
Ford
• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
• Zango erremolkeak
• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak
Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

# Esteban Quintana

**Orduñakoa izatez, Esteban Quintana (hilaren 21ean 86 urte beteko ditu) txiki txikitan etorri zen Bergarara. Bilbon botones izan ondoren, 16 urtetatik zurgintzan aritu zen Matias Lasaren tailerrean. Mizpirualde erresidentzian oso ezaguna da duen alaitasunagatik.**

**- Mizpirualdeko gauzarik onena?**
- Hona etorri izatea.
**- Zerbait botatzen duzu faltan?**
- Ez, neretako ez behintzat.
**- Zer egiten duzu egunero?**
- 8.30etan jeiki, mezan lagundu, bazkaldu, siesta egin, pasiatu, afaldu eta ohera.
**- Goiza ala arratsaldea?**
- Goizean hobe.
**- Zer esango zenieke Mizpirualde ezagutzen ez dutenei?**
- Asko beldurrez etortzen dira baina ni neure zahartzaroarekin konforme egoteko etorri naiz.
**- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**
- Osasunari.
**- Kirolik egiten duzu?**
- Yoga, oso ondo datorkit.
**- Beldurra, zeri?**
- Lana ez egoteari, gazteriaren *jaleoari...*
**- Zerk jartzen zaitu sutan?**
- Futbolari garrantzi gehiegi emateak.
**- Zer iritzi daukazu politikoei buruz?**
- Lotsagabe batzuk direla.
**- Irakurketa atsegin duzu?**
- Bai, periodikoak eta errebistak betez ere. Pérez Reverte asko gustatzen zait, autentikoa da.
**- Egurrarekin nolako lanak egiten zenituen?**
- Altzariak. Orduan Matias Lasaren tailerrean 15 bat ofizial ginen.
**- Oroitzapen on bat?**
- Hainbeste dira... Txarrak ere baditut, gerra garaikoak.
**- Erretratu zaharrak gordetzen dituzu?**
- Bai eta sarritan ikusten ditut.
**- Bilbo Bergara baino hobeto ezagutzen omen duzu...**
- Bai, botones ibili eta gero kale guztiak ikasi nituen.
**- Metroan ibiltzeko asmorik?**
- Orain ez naiz joaten, bronkioengatik laister kantsatzen naiz.
**- Janari bat?**
- Zopa. Zopazalea naiz.
**- Pertsonaia historiko bat?**
- Pio Baroja, emozionatu egiten naiz berarekin.
**- Zerekin egiten duzu amets?**
- Pakea izatearekin, familia bizitzak ondo tratatzearekin...



*"Neure zahartzaroarekin konforme egoteko etorri nintzen Mizpirualdera, inolako konplexurik gabe. Beldurra zeri diodan? Lana ez egoetari, gazteriaren jaleoari... Bilbo asko atsegin dut baina orain ez naiz hainbeste joaten, ez dakit metroan ibiliko naizen"*

TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
bazkari eta afariak
Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

ZURUTUZA
HARATEGIA • URDAITEGIA
Urteaga kalea, 9 BERGARA
☎ 76 08 68

TXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

EDEL
TAPIZDENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta, 14 BERGARA

## ETXEBIZITZA

122 m2ko **pisua** salgai. LoratEgiarekin (286 m2). ☎ 76 33 85/15 76 (gauez).

Aranerrekan **pisua** salgai. ☎ 76 00 39/79 27 68.

**Garajea** (2 plaza) alokatzen da Torrekuan. ☎ 76 30 32.

**Garaje** bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 18 52.

**Bi gelatako** pisua alokatuko nuke. ☎ 76 21 43 (Igone).

**Etxea salgai** Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

**Garajea** alokatuko nuke Zurraderon. ☎ 76 37 69.

**Garajea** salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

**Pisu** edo ganbara bat alokatuko nuke. ☎ 76 47 85.

**Lokala** alokairuan Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

**Etxea** salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

**Pisua** salgai Koldo Eleizalde 18n. ☎ 76 31 57.

**Garajea** alokatzen da Masterrekan. ☎ 76 45 10.

**Pisua** salgai Joan XXIII plazan. ☎ 76 27 80.

**Garaje** bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

## DENETARIK

**Aintzinako** komedore bat erosiko nuke. ☎ 76 12 86.

**Zibro-kamin** estufa bat (RCA-86 B modeloa) salgai. ☎ 76 21 90.

**Eski** denboraldian Jacan pisua osatzeko jendea behar da. ☎ 76 14 59 (Iulen).

**Honda** CBR 600 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

**Mendiko** bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

**Bi motozikleta** (GAC Kanowey) salgai. ☎ 78 70 98 (Arantza).

**Bultaco** cross motorra, Axo trajea, botak eta kaskoa salgai. 60.000 pezeta. ☎ 76 31 40 (Miguel).

**Motozerra** elektrikoa salgai. ☎ 76 29 95.

**Sukalde** berri berria saltzen dut. Prezio intesgarria. ☎ 76 21 55 (eguerdian).

**Flauta trabesera** egoera onean salgai. ☎ 76 35 56.

**Organo txiki bat** erosiko nuke. ☎ 76 24 54.

**Tosai** kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 07 61.

Formato erdiko **Zenza Bronika** kamara salgai. ☎ 77 12 28 (Jabier).

**Dibujo** mahaia, taburetea, akuarela ekipoa eta pintzelak saltzen ditut. ☎ 76 36 22.

## LANA

**Aleman** klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Matematika,** fisika eta kimikako klaseak. ☎ 76 44 34.

**Aleman** diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

**Matematika** eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72.

**Etxeko** lanak egin edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 79 93 17.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Gutxitu psikikoen hezitzaile** batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

**Esperientziadun** neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

**Ingeles Filolojia** duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

**Matematika** eta zientzietako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma)/ 76 45 80 (Andoni). Barrenkalea 13, 3.a.

**Etxeko** lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 48 (Paki).

**Etxeak** garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

**Taberna** bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 07 74.

**Matematika,** zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

LAGUN ARO
ASEGURUAK
RAC
VASCO NAVARRO
AGENTEA-DELEGATUA
Ramon Iraegi Eguren
Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxa: 76 41 54
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



*"Novedadesen izaten den ohiko zine-klubak lagatzen duen hutsunea bete eta osagarri izan nahi dugu"*

*"Pelikula zahar ezagunak eskainiko ditugu; pantaila haundian eta jatorrizko bertsioan"*

## JOSE BALLESTEROS, ZINEZALEA

# "Herriko zinezaleak bildu nahi ditugu Cinématographe Forumean"

**Jose Ballesterosek (22 urte) Irudi eta Soinu ikasketak burutu zituen Erandion. Urnietan zine ikastaro batean parte hartzeko aukera izan zuen eta hainbat laburmetraietan parte hartu zuen. Handik datorkio zinerako zaletasuna. Orain, beste lagun batzuekin batera Cinématographe Foruma, herriko zinezaleen topagune izateko elkartea, sortu du.**



Larunbateko zine emanaldiarekin hasi eta datorren urtean hilero pelikula zaharrak eskaini nahi dituzte Cinématographe Forumekoek.

**- Zer da Cinématographe Foruma?**

- Zinearen 100. urteurrena dela eta, lagun talde bat bildu eta herrian zine elkarte bat eratzea erabaki genuen. Ostegunetan Novedadesen egiten den ohiko zine-klubak lagatzen duen hutsunea bete eta horren osagarri izan nahi da. Kontutan izanik Bergarako zine-klubean pelikula modernoak ematen direla, pelikula zaharrak eskaini nahi ditugu.

**- Larunbat honetarako prestatu duzuen ekitaldiarekin hasiko zarete?**

- Bai. Horrez gain, datorren urteko urtarrilean hasi eta urtean zehar bederatzi emanaldi programatu nahi ditugu, hilean behin gutxi gora behera. Carl T. Dreyer-en Vampire pelikularekin (zine mututik hotsdun zinerako pausua eman zuen kalitatezko lehen filmea) ekingo diogu. Bestalde, uda partean aire librean zinea eskaini nahi dugu.

**.- Pelikulak nondik lortzen dituzue?**

- Madrileko eta Bartzelonako bildumazale pribatu batzurekin harremanak ditugu eta eurek utziko dizkigute.

***"Zineaz gain, bideo pelikulak eta bideoarekin lan egiten duten artisten lanak ekarri eta mahainguruak ere antolatzeko asmoa dugu"***

**- Zuen asmoa zine elkarte bat sortzea da?**

- Bai, orain taldetxo bat dihardugu lanean, baina gure asmoa herriko zine zaletu guztiak biltzea da, bazkideak egin eta gastuei aurre egiteko gai izan. Bazkide bakoitzari 2.000 pzta. eskatuko dizkiogu, horren truke antolatzen ditugun emanaldietako sarrera doan izango dute. Horrela ordaindu ahal izango ditugu urteko pelikula guztiak.

**- Zinera mugatuko zarete?**

- Ez, bideo pelikulak edo bideoarekin lan egiten duten artisten lanak ekarri eta mahainguruak antolatu nahi ditugu. Bestalde, zine-klubean, pelikula ikusi ondoren eztabaida saioak antolatu nahi ditugu, ea jendeak nola erantzuten duen...

**- Minoritariaok ez al dira ekarri nahi dituzten pelikulak?**

- Pelikula zaharrak izango dira, baina ez arte eta entsaiukoak, oso gutxiri interesatzen zaizkienak. Pelikula ezagunak ekarri eta zine pantaila haundian, jatorrizko bertsioan, emango ditugu, Orson Welles-enak esate baterako.

# Labegaraietako *futbito* Txapelketa

## 1. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Errotagain | 13 | 5 | 22 | 10 |
| 2. Madura Industrias Gol | 12 | 5 | 18 | 5 |
| 3. Bergatrans | 12 | 5 | 9 | 12 |
| 4. Kabia | 10 | 5 | 11 | 8 |
| 5. Ogizun | 9 | 4 | 15 | 10 |
| 6. Ortzi | 7 | 5 | 9 | 11 |
| 7. Mongatxurra | 6 | 5 | 20 | 9 |
| 8. Bar Canalejas | 6 | 5 | 9 | 8 |
| 9. Arloteak | 4 | 4 | 4 | 6 |
| 10. Bildurbarek Opel/Lam | 3 | 5 | 13 | 17 |
| 11. Ozaeta | 3 | 5 | 9 | 19 |
| 12. Ufala | 0 | 5 | 5 | 28 |

## 2. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. OH Zerezos | 13 | 5 | 45 | 11 |
| 2. Pagomendi | 10 | 5 | 22 | 12 |
| 3. Uve Bikoitza | 9 | 5 | 19 | 19 |
| 4. A Ze Flaxa | 9 | 5 | 13 | 20 |
| 5. Autoberezi | 9 | 5 | 26 | 15 |
| 6. Hartu Zamak | 8 | 5 | 11 | 10 |
| 7. Etxagi | 7 | 5 | 31 | 21 |
| 8. Kayak Os Jardineiros | 5 | 4 | 19 | 15 |
| 9. Nahikari Hoolligans | 4 | 4 | 15 | 18 |
| 10. Eri | 3 | 5 | 15 | 26 |
| 11. Indar Gorri | 2 | 4 | 3 | 5 |
| 12. Haltzari | 0 | 4 | 7 | 25 |

## 3. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Amozkibar | 10 | 5 | 14 | 7 |
| 2. Kirolzaleak | 10 | 6 | 18 | 11 |
| 3. Soropotroak | 9 | 5 | 32 | 26 |
| 4. Nekrofilikos | 9 | 5 | 19 | 17 |
| 5. Const. Bergara | 8 | 5 | 22 | 14 |
| 6. Moskis | 7 | 3 | 12 | 6 |
| 7. La Juve | 6 | 5 | 19 | 23 |
| 8. Ari Ari | 6 | 4 | 27 | 22 |
| 9. Shaktale | 6 | 5 | 14 | 16 |
| 10. Ezinleike | 5 | 5 | 16 | 13 |
| 11. EH Biterrak | 4 | 5 | 7 | 29 |
| 12. Igandekoak | 0 | 3 | 11 | 14 |

## 4. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. FAC | 12 | 4 | 21 | 9 |
| 2. Guadalest | 10 | 5 | 18 | 13 |
| 3. Pata Negra | 10 | 5 | 17 | 16 |
| 4. PJS | 9 | 4 | 18 | 7 |
| 5. Txipiron | 7 | 4 | 16 | 11 |
| 6. Patxaran Team | 7 | 5 | 19 | 13 |
| 7. Matxakategi | 5 | 5 | 19 | 23 |
| 8. Labegaraieta Amilotx | 4 | 4 | 9 | 14 |
| 9. Osintxu | 3 | 4 | 11 | 20 |
| 10. Aldoka Naldoka | 3 | 4 | 22 | 19 |
| 11. Xurrupak | 0 | 4 | 10 | 31 |

## TALDEAK



**Aldoka Maldoka** taldea Iñaki Goikoetxea, Aritz Aranguren, Asier Lenisoro, Jokin Elkoro, Xabier Beistegi, Aitor González, Aitor Laskurain, Eduardo González, Iñigo Ramírez eta Ion Sanchézek osatzen dute. Hiru urte daramatzate 4. mailan jokatzen eta adierazi digutenez "partidu gehienak galdu egiten ditugu, baina hona ondo pasatzera etortzen gara eta bitartean partiduren bat irabazten badugu, askoz hobe eta etxera pozik joaten gara". Taldearen izena herriko tabernari ezagun batek aholkatuta jarri zutela esan digute.

## PARTIDUAK

**LARUNBATA BARRUAN**

**09.00:** Labegaraieta-Patxaran T. • **Soropotroak**
**10.00:** Soropotroak-Moskis • **La Juve**
**11.00:** La Juve-Shaktale • **Moskis**
**18.00:** Amozkibar-C. Bergara • **Ezinleike**
**19.00:** Ezinleike-Ari Ari • **Amozkibar**
**20.00:** Aldoka Maldoka-Osintxu • **Ari Ari**

**LARUNBATA KANPOAN**

**09.00:** Kayak Os Jardineiros-Eri • **Ogizun**
**10.00:** Ogizun-Madura • **Kayak Os Jardineiros**
**11.00:** Kabia-Bergatrans • **Madura Ind. Gol**
**16.00:** OH Zerezos-Indar Gorri • **Autoberezi**
**17.00:** Autoberezi-Hartu Zamak • **OH Zerezos**

**IGANDEA BARRUAN**

**09.00:** Kirolzaleak-Igandekoak • **Pata Negra**
**10.00:** Pata Negra-Xurrupak • **Igandekoak**
**16.00:** Nekrofilikos-EH Biterrak • **FAC**
**17.00:** PJS-FAC • **EH Biterrak**
**18.00:** Bar Canalejas-Ufala • **A Ze Flaxa**
**19.00:** Etxagi-A Ze Flaxa • **Ufala**
**20.00:** Pagomendi-Nahikari Hooligans • **Etxagi**

**IGANDEA KANPOAN**

**09.00:** Haltzari-Uve Bikoitza • **Ozaeta**
**10.00:** Ozaeta-Ortzi • **Haltzari**
**16.00:** Errotagain-Bildurbarek • **Arloteak**
**17.00:** Arloteak-Mongatxurra • **Errotagain**

**ANTOLAKETA BATZORDEAREN OHARRA**

Antolaketa Batzordeak jakinarazi digu, txapelketan dihardüen talde bakoitzak 8.000 pzta. ordaindu beharko dituela abenduaren 16a baino lehen.

## EMAITZAK

**1. MAILA**

Bildurbarek Opel/Lam-Ufala ........ 4 - 1
Ogizun-Bergatrans ........ 3 - 6
Arloteak-Ortzi ........ 1 - 2
Mongatxurra-Kabia ........ 2 - 3
Madura Industrias Gol-Bar Canalejas ........ 1 - 0
Ozaeta-Errotagain ........ 2 - 7

**2. MAILA**

OH Zerezos-A Ze Flaxa........ 1 - 0
Autoberezi-Uve Bikoitza ........ 4 - 6
Hartu Zamak-Pagomendi ........ 4 - 2
Eri-Etxagi ........ 4 - 2

**3. MAILA**

Soropotroak-Nekrofilikos ........ 5 - 3
Kirolzaleak-La Juve ........ 6 - 5
Amozkibar-Igandekoak ........ 2 - 1

**4. MAILA**

Labegaraieta Amilotx-Aldoka Maldoka ........ 6 - 1
PJS-Osintxu ........ 4 - 2
Pata Negra-Patxaran Team ........ 2 - 1
Matxakategi-Guadalest ........ 2 - 2

## TALDEAK



**Labegaraieta-Amilotx** taldea Patxi Conti, Angel Luis Pérez, Aitor Gorosabel, Jose Ramon Etxeberria, Felix Sáez, Igor Bauza, Isaac Lazkano, Alex Madariaga, Jose Mari Larrañaga, Xabier Garitano eta Jose Carlos Sarobek osatzen dute. Talderik beteranoenetarikoa da, hasi zenetik jokatzen ari baitira. Euren helburua asteburuetan kirola egin eta ondo pasatzea da. Aurtengo denboraldirako jokalari berriak sartu dituzte taldea gaztetuz, baina oraindik Angel Luis Perézek, 42 urterekin txapelketako jokalaririk zaharrena izaten jarraitzen du.

# Bergarar lasterkarien presentzia nabarmena Behobia-Donostian

***Lehen bergararra, Manuel Aranburu, 104. postuan sailkatu zen (1 11' 15")***

◆ ◆ ◆

***Pako Alonso (69 urte) amaitu zuen bergararrik zaharrena***

◆ ◆ ◆

***Lehen emakumea, Amaia Agirre izan da (1 45' 58")***

◆ ◆ ◆

***Bergarar emakumerik beteranoenak, berriz, Pili Barandiaran eta Marisabel Hurtado (49 urte)***

◆ ◆ ◆













## Bergarar eta antzuolarren sailkapen eta denbora ez-ofizialak

ITURRIA: FORTUNA ELKARTEA

| | | |
|---|---|---|
| 104 | Manuel Aranburu | 1 11' 15" |
| 112 | Basilio Aranburu | 1 11' 39" |
| 131 | Javier Moreno | 1 12' 22" |
| 192 | Roberto Zurro | 1 13' 56" |
| 260 | Anselmo Martinez | 1 15' 38" |
| 358 | Gaizka Asensio | 1 17' 33" |
| 374 | Ion Aranzabal | 1 17' 50" |
| 420 | Anton Barrutia | 1 18' 28" |
| 518 | Aitor Eraña | 1 19' 41" |
| 540 | Emilio Bernal | 1 19' 59" |
| 584 | Anselmo Gomez | 1 20' 24" |
| 617 | Luis Mari Etxezarreta | 1 20' 52" |
| 716 | Mikel Pildain | 1 21' 50" |
| 727 | Juan Ignacio Alberdi | 1 21' 55" |
| 757 | Jabi Ibarra | 1 22' 12" |
| 781 | Aitor Garcia | 1 22' 28" |
| 836 | Iñaki Legorburu | 1 22' 54" |
| 858 | Manu Gorospe | 1 23' 05" |
| 903 | Jose Mari Igarza | 1 23' 29" |
| 937 | Jose Mari Rubio | 1 23' 48" |
| 996 | Jesus Marzo | 1 24' 16" |
| 1002 | Luis Mari Alberdi | 1 24' 18" |
| 1161 | Asier Aranguren | 1 25' 27" |
| 1169 | Agustin Heis | 1 25' 31" |
| 1454 | Andres Arbulu | 1 27' 09" |
| 1858 | Xabier Lijo | 1 29' 25" |
| 1905 | Jose Arribas | 1 29' 45" |
| 1907 | Xabier Uribesalgo | 1 29' 46" |
| 1943 | Mikel Etxaniz | 1 30' 01" |
| 2046 | Jesus Mari Labaka | 1 30' 34" |
| 2146 | Iker Etxeberria | 1 31' 02" |
| 2154 | Jose Luis Osinalde | 1 31' 03" |
| 2175 | Iñaki Andueza | 1 31' 07" |
| 2288 | Jon Legorburu | 1 31' 46" |
| 2432 | Ion Ander Garitano | 1 32' 25" |
| 2470 | Juan Carlos Gonzalez | 1 32' 37" |
| 2563 | Aitor Gabilondo | 1 33' 00" |
| 2726 | Imanol Elkoroberezibar | 1 33' 46" |
| 2899 | Ion Suinaga | 1 34' 33" |
| 2926 | Jon Balentziaga | 1 34' 42" |
| 2949 | Xabier Larrañaga | 1 34' 46" |
| 2975 | Xabier Larrea | 1 34' 55" |
| 3023 | Ion Ugarte | 1 35' 06" |
| 3158 | Angel Agiriano | 1 35' 42" |
| 3160 | Jesus Kortabarria | 1 35' 43" |
| 3270 | Juan Ignacio Agirre | 1 36' 13" |
| 3355 | Iñaki Irigoien | 1 36' 35" |
| 3359 | Alex Muela | 1 36' 36" |
| 3367 | Karlos Lizarralde | 1 36' 39" |
| 3518 | Iñigo Montori | 1 37' 20" |
| 3560 | Unai Oses | 1 37' 33" |
| 3630 | Mikel Agirrezabal | 1 37' 48" |
| 3753 | Jose Angel Zabalo | 1 38' 21" |
| 3783 | Iñigo Iñurrategi | 1 38' 28" |
| 3996 | Igor Osa | 1 39' 22" |
| 4035 | Joxean Larrion | 1 39' 31" |
| 4043 | Jose Antonio Akizu | 1 39' 33" |
| 4138 | Eneko Uribarri | 1 39' 56" |
| 4170 | Luis Mari Eguren | 1 39' 58" |
| 4270 | Karlos Aldai | 1 40' 24" |
| 4285 | Pedro Luis Ormazabal | 1 40' 27" |
| 4302 | Fermin Hernandez | 1 40' 31" |
| 4322 | Jon Aranguren | 1 40' 40" |
| 4358 | Gregorio Plazaola | 1 40' 47" |
| 4415 | Migel Angel Larrañaga | 1 41' 00" |
| 4481 | German Alberdi | 1 41' 15" |
| 4563 | Mikel Bolibar | 1 41' 36" |
| 4596 | Igor Labaien | 1 41' 47" |
| 4711 | Iñaki Arietaleaniz | 1 42' 19" |
| 4740 | Jose Mari Lezeta | 1 42' 29" |
| 4746 | Bittor Arbulu | 1 42' 31" |
| 4761 | Gregorio Lakuntza | 1 42' 35" |
| 4995 | Iosu Errasti | 1 43' 45" |
| 5221 | Mikel Kerexeta | 1 44' 44" |
| 5242 | Jose Ramon Balzategi | 1 44' 49" |
| 5362 | Jon Larrañaga | 1 45' 24" |
| 5466 | Amaia Agirre | 1 45' 58" |
| 5497 | Jesus Diaz | 1 46' 06" |
| 5685 | Ion Aranburu | 1 46' 56" |
| 6031 | Jose Angel Amasorrain | 1 48' 45" |
| 6101 | Eñaut Uriarte | 1 49' 05" |
| 6103 | Patxi Arriola | 1 49' 06" |
| 6109 | Alfonso Ena | 1 49' 06" |
| 6142 | Asier Mendia | 1 49' 13" |
| 6169 | Pedro-Arroyo | 1 49' 23" |
| 6174 | Carlos Telleria | 1 49' 25" |
| 6221 | Iñaki Alberdi | 1 49' 43" |
| 6459 | Aitor Aperribai | 1 50' 53" |
| 6462 | Ainhoa Larrañaga | 1 50' 54" |
| 6465 | Xabier Legorburu | 1 50' 55" |
| 6533 | Alexander Quintana | 1 51' 16" |
| 6638 | Fernando Otaño | 1 52' 13" |
| 6683 | Iñaki Gantxegi | 1 52' 29" |
| 6895 | Arkaitz Kortabarria | 1 53' 53" |
| 6961 | Iosu Rodriguez | 1 54' 18" |
| 6968 | Ion Agirrezabala | 1 54' 20" |
| 6970 | Iñaki Osa | 1 54' 21" |
| 6973 | Eguzkiñe Uribesalgo | 1 54' 22" |
| 6999 | Jesus Maria Valgañon | 1 54' 29" |
| 7111 | Juan Luis Arriola | 1 55' 26" |
| 7259 | Markos Labaien | 1 56' 31" |
| 7266 | Pili Barandiaran | 1 56' 35" |
| 7400 | Iñaki Pedrejon | 1 57' 53" |
| 7488 | Ruben Laskurain | 1 58' 40" |
| 7498 | Iker Alberdi | 1 58' 56" |
| 7536 | Francisco Jose Moracho | 1 59' 20" |
| 7575 | Andoni Azkargorta | 1 59' 56" |
| 7659 | Javier Ros | 2 00' 50" |
| 7665 | Jesus Arazkonaga | 2 00' 52" |
| 7716 | Francisco Alonso | 2 01' 29" |
| 7734 | Jose Ramon Etxeberria | 2 01' 47" |
| 7844 | Iñaki Etxarri | 2 04' 00" |
| 7939 | Xabier Etxeberria | 2 06' 03" |
| 7951 | Marisabel Hurtado | 2 06' 15" |

**FUTBOL PARTIDUAK**

♦ **Bergara-Zarautz**
Preferente maila.
Igandea, 15.30. Agorrosin.
♦ **Bergara-Azkuene**
Ohorezko mailako jubenilak.
Larunbata 17.15. Ipintza.
♦ **Bergara-Eibartarrak**
2. mailako jubenilak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.
♦ **Bergara-Danena**
Lehen mailako kadeteak.
Igandea, 11.00. Ipintza.
♦ **Bergara-Eibar**
Lehen mailako infantilak.
Igandea, 9.30. Ipintza.

**ESKUBALOI PARTIDUAK**

♦ **Bergara-Amenabar**
Kadete mutilak.
Igandea, 11.00.
Labegaraieta kiroldegia.
♦ **Bergara-Tolosa**
Jubenil mutilak.
Igandea, 12.15.
Labegaraieta kiroldegia.

**SASKIBALOI PARTIDUAK**

♦ **Ibili Bergara-Sto Tomas**
Senior mutilak.
Larunbata, 16.15.
Labegaraieta kiroldegia.

**IGERIKETA PROBAK**

Larunbatean neguko ligako jardunaldi bat jokatuko da arratsaldeko 4etatik aurrera Agorrosingo igerilekuetan. 200 metro tximeleta eta braza eta 100 metro libreak jokatuko dira.

**ORDUTEGI ALDAKETA**

Astelehenetik aurrera. goizeko 8etan zabalduko da Agorrosingo igerilekuetako gimnasioa. Igandetan, bestalde, goizeko 10etan zabalduko da.

# Javi Pérez

## Agorrosingo aulkitxoan larri

**Bergarako preferente mailako taldea azken partiduetan ez dabil batere fin, jokatutako azken 5 partiduetan bakarrik puntu bat lortu baitu. Halere, Javi Pérezek ez du itxaropenik galtzen eta egoerari buelta emango diotela ziur dago.**

**- Espero zenuen izan duzuen liga hasiera?**

- Egia esateko ez. Bagenekien gauzak zailak genituela egindako apostua ikusiz, herriko jokalari gazteak bultzatu baititugu. Halere, aurredenboraldian egindako partiduak ikusita ez genuen horren gaizki ibiltzea espero. Izan ere, ligako lehenengo 4 partiduetan ondo ibili ginen.

**- Orduan zergatik azkenengo 5 partiduetako emaitza txarrak?**

- Taldean 20 jokalari ditugu, baina 4 jokalari funtzezkoak dira. Horiek Maki, Arrieta, Gallastegi eta Lazkano dira eta orain arte lesionaturik izan dira. Gainera hamaikakoan postu klabeetan jokatzen dute eta taldeak igartzen du.

**- Egoerari buelta eman al diezaioke taldeak?**

- Ziur nago baietz. Lan gehiago egin behar dugu eta jokalariak ez dira desanimatu behar. Euren jarrera oso ona da, baina erantzukizun gehiago hartu behar dute.

**- Erantzukizuna, zein zentzutan?**

- Lana ondo egiten duten arren, partiduan zehar "akomodatu" egiten dira. Orain aukera bikaina dute lehen taldean jokatzeko eta hori aprobetxatu egin behar dute. Urte askotan kanpoko jokalariak izan dira Bergaran eta orain zuzendaritzak egin duen apostua, herriko jakalarien aldekoa, aprobetxatu behar dute.

**- Zertan hobetu behar du taldeak?**

- Lesionatuak errekuperatu lehenengo eta gero hasieratik esandako gabeziak ere hor daude. Erdialdean jokalari indartsu bat eta aurrealdean indar gehiago behar da. Denboraldian 9 gol daramatzagu eta horietatik 2 bakarrik sartu dituzte aurrelariek. Ez dago jokalari bat esango duenik, "postu hau nirea da" eta errespontsabilitatea hartzen duena aurrean.

**- Zure postua kolokan ikusten al duzu?**

- Ez, zuzendaritzaren gauza da hori. Baina pozik nago orain egindako lanarekin eta Bergaran eta herriko jokalariekin egindako taldearen aldeko apostua aurrera eramateko prest nago. Bai, aurrera egingo dugu.




Javi Pérezek ez du arriskuan ikusten bere postua.

**"Jokalarien jarrera ona da, baina erantzukizun gehiago hartu behar dute, gazteak izan arren"**



# *Elementalekoak Pasaian bisitari*

Ez pentsa ez hauek Asturiaseko mineroak direnik. Lanbide Hezkuntzako Elektrikoko ikasleak dira eta argazkia 1989 urtekoa da. Ikasturte hartan, teknolojiako klasean, Pasaiako zentral termikoa bisitatzeko irteera bat egin zuten. Arreta haundiz jarraituz zituzten lantegiko arduradunen esplikazioak eta, kontrakoa ematen badu ere, ez zen inolako *apagoirik* izan egun hartan Pasaia inguruan.

Horra hor argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Goian:** Joseba Moñux, Fernando Azula, Germán López, Juan Mari Otxoa, Alberto Morras, Gotzon Ibarra, Luciano Baladrón eta Juan Ignacio López-Aramendi.

**Behean:** Igor García (kaskoarekin tapatuta), Aitor Elkoro, Aitor Garitano, Alatz Larrañaga (ia tapatuta), Jose Ignacio Millán (kamararekin), Xabier Etxeberria, Igor Labaien, Kepa Egaña (Igorren atzean), Angel Mari Goñi, Antonio Alcaide, Ignacio Puertas, Fernando Caselles, Mikel Santos, Carlos López, Santi Barreña, Angel Gallastegi, "Beto", Jesus Mari San Martin, Madina, Imanol Guridi, Pedro Mari Imaz eta lantegiko bi arduradun.

*Argazkia: Germán López*

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

# ELKAR
## ELEKTRAGINTZA

Zure zerbitzura!!

**Mota guztietako instalazioak**



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA



# UDAZKEN KULTURALA

♦ **Azaroak, 24 ostirala**
**Novedades aretoan**
**Gaueko 10.30etan**
**"ERNESTO IZATEAREN GARRANTZIA"**
**MASKARADA antzerki taldeak emana**

♦ **Abenduak, 9 larunbata**
**San Pedro parrokian**
**Arratsaldeko 8etan**
**JOSE MANUEL AZKUE AGINAGALDEren**
**ORGANU KONTZERTUA**

♦ **Abenduak, 29 ostirala**
**Novedades aretoan**
**Gaueko 10.30etan**
**"PECATA MINUTA"**
**KARRAKA antzerki taldearen ikuskizuna**



# JAKINA










BAINUAK | ZERAMIKAK | SUKALDEAK

**Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko behar duzun guztia eskainiko dizun DENDA ESPEZIALIZATUA.**

**Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den TALDE PROFESIONALA dugu.**

**San Lorentzo**
**Poligono Industriala.**
**Amilaga, 10 behea.**
**BERGARA**

JAKINA

**Telefonoa: 76 03 30**
**Faxa: 76 02 91**